BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2043

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez, zerrendan ageri diren finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten da. Finka horiek guztiak dira Gamiz-Fika udalerrian dagoen egungo «Olazar» Transformazio Zentroko L2 behe tentsioko airetiko linea elektrikoa egikaritzeak (200602670 zk.) eraginpean harturikoak (Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. sozietatea da titularra).

Erref.: L-7800-ASS-TLE.

Esp.: AT-H-2012/37.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2013ko urtarrilaren 3ko Ebazpenak aipatutako instalazio elektrikoa onuragarria dela aitortu zuen.

Arlo elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluak xedatutakoaren arabera, onuragarria dela aitortuz gero, ezinbestekoa izango da eragindako ondasunak okupatzea edo eragindako eskubideak eskuratzea. Horrez gain, aitorpen horrek premiazko okupazioa ere badakar, Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Horregatik, eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 52. artikuluak (1954-12-17ko BOE) xedatutakoa betetzeko, Lurralde Ordezkaritzak ebatzi du dei egitea eragindako eskubide eta ondasunen jabe eta titularrei Gamiz-Fikako udaletxera etor daitezen bilera batera; izan ere, udal horretan daude eragindako ondasunak. Bilera horretan eragindako ondasunak okupatu aurreko aktak egingo dira eta, hala balegokio, behin betiko okupazioa.

Bestalde, bilerara agertu beharko dira interesdunak eta eragindako ondasunen gainean edozein eskubide edo interesen titular direnak, edo, bestela, haien ordezkariak joan ahal izango dira. Ordezkariak joanez gero, behar bezala baimendutako ordezkariak izan beharko dira. Bilerara titulartasuna egiaztatzeko agiriak eta kontribuzioaren azkeneko ordainagiria eraman beharko dira. Gainera, aditu edo notario batekin ere joan ahal izango dira, nahi izanez gero.

Okupatu aurreko aktak honekin batera doan zerrendan jarritako egun eta tokietan egingo dira. Horren berri emateko, zitazio-zedula bana bidaliko zaio titular bakoitzari, eta bertan adieraziko zaio bileraren tokia, eguna eta ordua. Horrez gain, Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 52. artikuluan xedatutako gainontzeko iragarkiak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen erregelamenduko 56.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, argitaratutako zerrendan agertu ez diren interesatuek edo eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek aukera dute idatziz edozein alegazio aurkezteko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Lurralde Ordezkaritza honetan (Bilboko Concha Jenerala kaleko 23 zenbakiko 5. solairuan). Alegazioak aurkezteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da, eta alegazioen helburua da eragindako eskubide eta ondasunen zerrendan egindako akatsak zuzentzea.

Aditzera ematen da, halaber, iragarki honek jakinarazpenaren balioa izango duela identifikatu ezin izan diren interesatuentzat, ukitutako ondare eta eskubideen titular ezezagunentzat eta helbide ezezaguna dutenentzat, hala ezartzen baitu azaroaren 30eko 30/1992 Legeak –Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak– 59.4 artikuluan, eta hala agintzen baita Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan.

Bilbao, 2013ko martxoaren 18a.

Lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZALEZ BERRUETE.

AKTAK EGIN AURREKO DEIA

Honako proiektu honek eraginpean hartutako ondasun eta eskubideen zerrenda: Egungo «Olazar» transformazio-zentroko L2 behe tentsioko airetiko linea elektrikoa (200602670 zk.) egikaritzea, Gamiz-Fika udalerrian.

Ref.: L-7800 -ASS-TLE.
Exp.: AT-H-2012/37.

Katastroko Datuak							
Lursailaren zenbakia planoaren arabera	Poligonoa	Lursaila	Jabea	Hila	Eguna	Ordua	Udaletxea
05	001	108 G	Uriarte Barajas, Hilaria	Maiatza	16	9:20	Gamiz-Fika
07	027	002	Uriarte Barajas, Edurne	Maiatza	16	9:00	Gamiz-Fika